

Egun on guztioi.

Iazko urrian aurkeztu genuen Euskaltzaindian *ERLEA* egitasmoaren lehen emaitza. Bernardo Atxaga euskaltzain osoaren eskutik zetorren hura, eta biltzen zuen, orobat, Pamiela etxearen eskarmentua.

Orduan esan genuena berrestez at ere, badira oraingoan berriro esatekoak, alegia, hau ez dela ekimen isolatua, inondik inora, bestelako jarraitutasunik ez duena.

Aitzitik, literaturaren aldetik Euskaltzaindiak ondu duen lana indartzera dator. Literatura batzordea eta Herri Literaturaren batzordea hor ari dira, etengabe, euren lanak atontzen. Berrikitan egin da Euskaltzaindia eta BBK-ren arteko literatura-ataria, eta Literatura Terminoen Hiztegia webgunean sareratu da.

Berrikuntzarako eginahalak, nahitaez, bestetik ere etorri behar dira, hau da, sorkuntzatik, eta, bide batez, kultura zabal horretan barruratzen den mundu horretatik.

Mundu horren erakusle bikain eta aparta du Euskaltzaindiak. Hain zuzen ere, Bernardo Atxaga euskaltzaina, *ERLEA* aldizkariaren hauspo eta arima. Oraingoan esan dezakegu, gainera, sekulako bidaia eskaini digula, Euskal Herritik Irlandara doana. Bidegintza horretan, bestelako bidegurutzeak ere eskura ditugu, *ERLEA* aldizkariaren bigarren zenbakian; batzuk, gozoak, eta beste batzuk, mingotsak, adiskide min izandakoen galera hortxe dagoelako.

Bidaia hori, bistan da, askok egin dute norabide bietan, hots, Hegoaldetik Iparraldera, eta itzulian.

Nik, besterik gabe, buruan izan dut behinola San Brendanonek egin zuen hura, itsas erdiko uharte baten esperantzan.

Uharte aurrkitu zuen San Brendanonek, uharte berri eta ezezaguna. Horretarako izan zituen bidaideak; horretarako saiatu zen nekerik gabe.

San Brendano, irlandera *Brenaiud moccu Alti*, batera eta bestera aritu zen itsasoko uretan, Irlandatik Eskoziara, Eskoziatik Thule edo Islandiara. Atsedanaren beharrez, haren *navigatio* idatzi zenean, Erdi Aroko literaturaren klasiko bihurtu zen.

Haren antzera, nabigazio berrietan dabil Euskaltzaindia ere. Nabigazio horietan, esan beharrik ez dago, beharrezkoak dira gidariak eta baliabideak. Gurea, argi dago, euskal kulturaren uretatik mundu zabalera doa. Gidari fin eta trebe dugu Bernardo Atxaga, eta baliabide egokia, ERLEAren bigarren zenbakia. Uhartean nahiko nituzke idoro, San Brendanonen antzera, euskal kulturaren emaitza oparo eta aberasgarriak.

Horretan dihardu aspalditik Euskaltzaindiak. Horretan jarraitzen du, eta horretan jarraituko du, euskal kulturaren desiozko uharte hori errealitatean aurkitu arte.

Bagoaz, beraz, barruko kalatik atako bandara; bagoaz, hitz gutxitan esateko, guretik mundura, horixe baita, nire ustez, modu bakarra, gurea munduan ezagutarazteko eta munduarena gureganatzeko.

Andres Urrutia